

“Euskara kimikarien ikasketa- eta lan-munduan”

Kimika Fakultatea

2022ko abenduaren 13a

Kimika Fakultateko Euskara Batzordea
kimika.fak.euskarabatzordea@ehu.eus

Marian Iriarte
Oier Etxebeste
Javier Cepeda
Iñaki Berregi
Jon Lemos
M^a Jesus Aranzabe (koordinatzailea)

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreorde hori:

Nik, M^a Jesus Aranzabek, adierazi nahi dizut gauzatu dugula UPV/EHUk Euskararen erabilera sustatzeko 2022ko diru-laguntzen deialdira Kimika Fakultateko Euskara Batzordearen izenean aurkeztu nuen eta onartua izan zen "Euskara kimikarien ikasketetan eta lan-munduan" ekimena.

Ekimena 2022ko abenduaren 13an egin da Kimika Fakultateko Ekitaldi Aretoan. A eranskinean ageri da ekimenari dagokion egitaraua.

Egitarauan ikus daitekeen bezala, batetik, mahai-ingurua antolatu dugu. Mahai-inguruan parte hartu dute gonbidatu ditugun bost kimikari hauek: Guillermo Roa, Josu Lopez-Gazpio, Itziar Otaegi, Mariaje Barandiaran eta Andoni Zabala. Bostak Kimika Fakultateko ikasleak izan ziren eta ikerkuntzan, hezkuntzan eta komunikazioan dihardute edota jardun izan du, horietako bat jubilatuta dagoelako. Proposatu diegu ikasketa-garaian eta lan-munduan euskararekin (izan) duten esperientzia partekatzeko. B eranskinean ageri dira solasaldia bideratzeko egin zaizkien galderak.

Oso interesgarria izan da. Izan ere, gonbidatutako hizlariak belaunaldi desberdinetakoak izanik aukera izan dugu gertutik ezagutzeko zein bilakaera izan duen euskarak lizentziaturan presentziarik ez zuen garai hartatik gaur egun arte; egun gradua euskaraz egiteko aukera dago. Agerian geratu da irakasle talde batek egin zuen lana eta ahalegina, garai hartako ikasleek izan edo egin zuten aukera eta elkarri laguntzeko zuten borondatea, nahiz eta euskarazko materialik edo baliabiderik ez izan. Lan horri esker aurrera egin zuen euskarak unibertsitatean. Solasaldiarekin aurrera egin ahala, beste eztabaidagaiak ere sortu dira, esaterako, ea onuragarria den C1 eta C2 agiriak ematea gradua edo doktoregoa euskaraz egiteagatik, zer egin daitekeen eta zergatik ikasketak euskaraz egin dituzten ikasleek oraindik ere akatsak egiten dituzten, fakultatean egin den euskara ez-formalaren azterketaren harira zergatik nagusitzen den gaztelania erabilera horietan, etab.

Laburbilduz, oso aberasgarria gertatu da; entzuleriak ere parte hartu du eta bat baino gehiago identifikatuta sentitu da entzundakoarekin. Oro har, hausnarketarako ariketa ederra izan dela esan dezakegu.

Bestetik, euskarazko lanak saritzeko lehiaketa antolatu dugu (C eranskina) eta horren berri eman da ikasturte honetako lehen lauhilekoan zehar fakultateko graduko, mailetako... koordinatzaileen bitartez eta mezuak bidaliz ikasleen, irakasleen eta abarren foroetara. Aurkeztu diren lanak, sarituak zein izan diren eta zein sari jaso duen lan bakoitzak ageri da sari-banaketako ekitaldirako prestatu dugun aktan (D eranskina). Akta horren ondoren dago sari horiei dagokien faktura.

Ez dugu denbora-tarte handirik izan ekimena bukatu eta entzuleriaren iritziak zehaztasun handiagoz jasotzeko, baina bertaratutakoek oso gustukoa izan dutela ekimena adierazi digute.

Bukatzeko, ekimenari dagozkion argazki batzuk igo ditugu UPV/EHUren zaindegira:

<https://www.ehu.eus/zaindegi/index.php?action=list&order=name&srt=yes&lang=eu>

Pasahitza: sustatu

Argazkien karpeta izena: abenduak_13_argazkiak_KIM

A. eranskina: egitaraua



KIMIKA
ZIENTZIEN
FAKULTATEA
FACULTAD
DE CIENCIAS
QUÍMICAS

EUSKARAREN EGUNA KIMIKA FAKULTATEAN

NOIZ: abenduaren 13an (astearte beltza "Black Tuesday")

NON: Fakultateko Ekitaldi Aretoan

EGITARAUA:

11:00-11:10 Aurkezpena

11:10-12:10 Mahai-ingurua: euskara kimikarien ikasketa- eta lan-munduan

Parte-hartzaileak: - Guillermo Roa (Elhuyar)
- Josu Lopez-Gazpio (UEU)
- Itziar Otaegi (Kimika Fakultatea)
- Mariaje Barandiaran (Kimika Fakultateko irakasle ohia)
- Andoni Zabala (Kimika Fakultatea)

12:10-12:40 Kimikako euskarazko lanen lehiaketako sari-banaketa

12:40-13:00 Itxiera

Kimika Fakultateko Euskara Batzordea

B. eranskina: mahai-ingururako galderak

1. Egin ezazue atzera denboran eta koka zaitzete Lizentziaturako edo Gradu ikasketak egiten hasteko unean.
 - Zer oroitzapen dituzue?
2. Lizentziaturako edo Gradu ikasketak amaituta, lan-mundura, ikerketa-mundura... egin zenuten jauzi.
 - Zerekin aurkitu zineten?
3. Hizkuntzaren erabilera ez-formalaren neurketa egin berri da fakultatean. Hizkuntzen erabilera orokorraren emaitzek erakusten dute egiten dutela % 51,7k gaztelaniaz, 46,8k euskaraz eta 1,5ek beste hizkuntzetan.
 - Zer deritzozue?
 - Duzuen esperientzia aintzat hartuta, gomendiorik emango zenigukete euskararen erabilera hori handitzen laguntzeko?

C. eranskina: lehiaketaren berri ematen duen dokumentua



KIMIKA
ZIENTZIEN
FAKULTATEA
FACULTAD
DE CIENCIAS
QUÍMICAS

Kimika Fakultateko euskarazko lanen sariak 2022

Kimika Fakultatean egindako euskarazko lanak erakustera eman nahi ditugu, eta horretarako euskaraz egindako kimikari buruzko lanak saritu nahi ditugu.

Zer lan aurkez daiteke?

Hiru kategoria hauetako lanak:

- Posterrak
- Wikipediako artikulak
- Dibulgazio-artikulak

Lan horiek azken lau ikasturteetan (2019/2020, 2020/2021, 2021/2022, 2022/2023) eginak izan behar dira.

Nork har dezake parte?

Lan indibidualak eta talde-lanak onartuko dira. Parte-hartzaile guztiek **Donostiako Kimika Fakultatekoak** izan behar dute.

Sariak

Lehiaketa honetan 3 lanik onenak sarituko dira:

1. saria: 200 € (EHUdendako bonua)
2. saria: 150 € (EHUdendako bonua)
3. saria: 100 € (EHUdendako bonua)

Epaimahaiak proposa dezake sari horietakoren bat eman gabe uztea.

Balorazio-irizpideak

Epaimahaiko kideek baloratuko dituzte lanak, honako irizpide hauek kontuan hartuta:

- Lanen edukia modu argian ematea
- Euskararen erabilera zuzena eta egokia izatea

Epaimahaia

Epaimahaia fakultateko Euskara Batzordeko kideek osatuko dute:

<https://www.ehu.eus/eu/web/kimika-fakultatea/euskara-batzordea1>

Zer aurkeztu, non eta noiz?

Egindako lana Kimika Fakultateko Euskara Batzordeari helarazi behar zaio posta elektronikoz; hau da, lana (PDF formatuan) bidali behar da posta elektronikoko honetara: (kimika.fak.euskarabatzordea@ehu.eus). Mezu elektronikoa gain "lehiaketa" idatzi behar da.

Lan guztiek egileen izen-abizenak eraman behar dituzte.

Lanak aurkezteko epea

2022ko azaroaren 7tik abenduaren 1a arte.

Lehiaketaren ebazpena

2022ko abenduaren 13an emango da jakitera zein izan diren sartitutako lanak.

Oharrak

Lehiaketa honetan parte hartzeak esan nahi du parte-hartzaileak ziurtatzen duela bere lanaren egilea dela eta aldi berean antolakuntzak baimena duela hautatutako lanak erabiltzeko, betiere egileen izen-abizenak adierazita, lehiaketa bera ezagutaraztearren.

Parte-hartzaileek berek bermatu beharko dute aurkeztutako lanetan ez dela urratzen beste inoren irudi-, jabetza- edo egile-eskubiderik.

Lehiaketa honetan parte hartzeak aipatutako oinarri guztiak onartzen direla ondorioztatzen du.

Kimika Fakultateko Euskara Batzordea

D eranskina: sarien banaketako akta



KIMIKA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE QUÍMICA

Kimika Fakultateko euskarazko lanen sariak erabakitzeko bileraren akta

2022ko abenduaren 12an 16:00etan Kimika Fakultateko Euskara Batzordea bildu da **Kimika Fakultateko euskarazko lanen sariak 2022** lehiaketara aurkeztutako sariak erabakitzeko.

Hauetxek aurkeztutako lanak:

7 poster

Petrolio eta bio iturrietatik eratorritako C8 alkil (met)akrilato monomero isomeroen ur-fasean dispertsaturiko polimeroen mikroegitura

Nanopartikula polimeriko degradagarriak: ϵ -kapolaktonan eta azido laktikoan oinarritutako nanopartikulen sintesia

ABS polimeroaren txertatze-propietateen determinazioa: EMN eta FTir-ATR arteko espektroskopia konparaketa

Alkoxisilanoz eraldatutako emultsio kopolimeroen bilakaera biltegitratzean zehar

Fosfato kontzentrazioaren eta pH-aren determinazioa kolirio laginetan irudi digitalen analisia erabiliz

Nikel estaldura bainuetan hipofosfito edukiaren kontrola metodo zinetiko eta kolorimetriko baten bitartez

Grafitoaren ezaugarriak eta propietateak

8 artikulu

Estaldura jasangarriak nanopartikula funtzionalak erabiliz

Sagardoaren azidotasunaren garrantzia

Etanola: zaurien babeslea

Ura "biguntzen" edo plutonioa garbitzen duten "puxtarriak"

Gatza sukaldetik kanpo

Irudi digitalen analisia: espektrofotometria ordezkutzen

Fosfato kontzentrazioaren eta pH-aren determinazioa kolirio laginetan irudi digitalen analisia erabiliz

Nikel estaldura bainuetan hipofosfito edukiaren kontrola metodo zinetiko eta kolorimetriko baten bitartez

Ez da **wikipediako** lanik aurkeztu

Batzordeak aipatu beharreko lehen gauza hauxe da: lan batzuen edukia oso ona izan bada ere, ez dira dibulgazio-artikuluak, eta ez dira lehiaketan onartu.

Bestalde, lanen mailak oso ezberdinak dira, batzuk graduko ikasleek egindako dibulgazio-lanak baitira, eta beste batzuk aldiz doktoregaiak edo doktoreek kongresuren batean aurkeztutako lanak edo posterrak.

Honenbestez, erabaki hau hartu du batzorde honek:

4 lan sarituko dira, 2 poster onenak eta 2 artikulu onenak, eta sariak hauexek izango dira, 200 €, 150 € (posterretan) eta 150 € eta 100 € (artikuluetan).

Eta hau guztia argitu ondoren, hauexek saridunak:

2. posterrik onena:

Fosfato kontzentrazioaren eta pH-aren determinazioa kolirio laginetan irudi digitalen analisia erabiliz. Irati Berasartek eta besteek aurkeztua. 150 €-ko EHUdendako bonua

1. posterrik onena:

Alkoxisilanoz eraldatutako emultsio kopolimeroen bilakaera biltegitratzean zehar. Aitor Barquerok eta besteek aurkeztua. 200 €-ko EHUdendako bonua

2. artikulurik onena:

Gatza sukaldetik kanpo. Unax Roldanek eta besteek aurkeztua, 100 €-ko EHUdendako bonua

1. artikulurik onena:

Ura "biguntzen" edo plutonioa garbitzen duten "puxtarriak". Andrea Cidek eta besteek aurkeztua, 150 €-ko EHUdendako bonua

UTE EHUDENDA
 U95419024
 ABANDOIBARRA 3
 48009 BILBAO BIZKAIA
 944169794

FAKTURA /Factura

Zkia. / N° 2022000888
 Data / Fecha 13/12/2022

IZENA / NOMBRE	HELBIDEA / DIRECCION				
KIMIKA FAKULTATEA/FACULTAD DE QUÍMICA	PºManuel de Lardizabal,3				
I.F.K. / N.I.F.	HERRIA / POBLACION	P.K. / C.P.	HERRIALDEA / PROVINCIA		
Q4818001B	Donostia	20018	Gipuzkoa		

ALBARAN Zkia./ N° Albarán: A2022000966

ERREF. / REF.	KONTZEPTUA / CONCEPTO	KOP. /Nº	DES.	PRE.	ZENB. /IMP.
459	BONO 200	1		165,289	165,29 €
459	BONO 150	2		123,967	247,93 €
459	BONO 100	1		82,645	82,64 €

Zerga Impuesto	Oinarria Base	%BEZ %Imp.	Z. Guztira Total Imp.	Guztira Total Bruto	Zerda Oinarria Total Base	Z. guztira T.Impuestos	Faktura Total Factura
IVA	495,86 €	21,00	104,13 €	495,86 €	495,86 €	104,13 €	599,99 €

ORDAINKETA MOTA/
 FORMA DE PAGO:

Transferencia a la vista La Caixa ES90-
 2100-6548-01-0200038006

EPEMUGAK/

VENCIMIENTOS: 13/12/2022 599,99 €

ORDAINTZEKO KONTZEPTUAN FAKTURA ZENBAKIA ADIERAZI
 IDENTIFICAR NÚMERO DE FACTURA EN CONCEPTO DE PAGO